ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIA
JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL
ERRONKARIKO IBAXAREN BATZORDEA
Fecha, Data 2020 OTS. FEB. 18
Salida nº Irteera zk. 62 / Entrada nº Sarrera zk.

Paseo Julián Gayarre, 5
31415 Roncal - Erronkari (Na)
Tel.: 948 47 50 35
juntageneral@valederoncal.es
C.I.F.: P3129900A

MARCELINO LANDA PASQUEL Erronkaribarko Batzorde Nagusiko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Erronkaribarko Batzorde Nagusiak 2020ko otsailaren 11n egin ezohiko osoko bilkuraren aktak hitzez hitz ondokoa jasotzen duela:

"2020ko otsailaren 11ko 18:00etan, Erronkariko Batzar-etxean, Marcelino Landa idazkaria izanik eta Jone Alastuey Uztarrozeko udaleko alkatea Batzordeburu dela, bera Uztarrozeko ordezkari gisa agertuz, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du. Gainerako herrien izenean ondoko ordezkariak bertaratu dira:

IZABA: David Baines Pilart eta Carlos Anaut Abadia
URZAINKI: Eneko Egiguren Ruiz eta Virginia Atanes Galech
ERRONKARI: Amparo Viñuales Gale eta Jesus Maria Cruchaga Mainz
GARDE: Ordezkaririk ez
BURGI: Elena Calvo Petroch eta Ainhoa Elizalde Ojer
Bidankoze: Tomas Pasquel Ayechu

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

1.- BATZORDEKO BI ZERBITZURI INTERNETEKO KONEXIOA DUTEN TELEFONO MUGIKORRAK JARTZEA

Gizarte hezitzailearen eta euskara teknikariaren idazkia irakurri da. Horren bidez aipatzen dute lanpostuen ezaugarriengatik eta funtzioengatik gero eta ohikoagoa dela sakelako telefonoaren erabilera: komunikaziorako, informazioa zabaltzeko, jarduerak iragartzeko eta horietan izena emateko...

Azaltzen dutenez orain arte beren telefono pertsonalak erabili izan dituzte, baina uste dute komeni dela erabilera pertsonala eta lan-erabilera bereiztea, bai haientzat bai zerbitzuen erabiltzaileentzat eta herritar guztientzat; eta garrantzitsua dela kontaktu guztiak, erabiltzaileak zein profesionalak, etorkizunean

DON MARCELINO LANDA PASQUEL, Secretario de la Junta General del Valle de Roncal,

CERTIFICO: Que el Acta de la sesión extraordinaria celebrada por la Junta General del Valle de Roncal, el día once de febrero de dos mil veinte, dice literalmente como sigue:

"En la villa de Roncal y Casa del Valle, siendo las dieciocho horas del día once de febrero de dos mil veinte, con asistencia del Secretario D. Marcelino Landa Pasquel y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa de la villa de Uztárroz Dña. Jone Alastuey García, que concurre representando a esta villa, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

POR ISABA: D. David Baines Pilart y D. Carlos Anaut Abadía
POR URZAINQUI: D. Eneko Egiguren Ruiz y Dña. Virginia Atanes Galech
POR RONCAL: Dña. Amparo Viñuales Galé y D. Jesús María Cruchaga Mainz
POR GARDE: No concurre representación alguna
POR BURGUI: Dña. Elena Calvo Petroch y Dña. Ainhoa Elizalde Ojer
POR VIDÁNGOZ: D. Tomás Pasquel Ayechu

Abierta la sesión por la Sra. Presidenta y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

1º.- DOTACIÓN DE TELEFONÍA MÓVIL, CON CONEXIÓN A INTERNET, A LOS DISTINTOS SERVICIOS DE LA JUNTA

Se da lectura al escrito que presentan la Educadora Social y el Técnico de Euskera en el que indican que, por las características y funciones de sus puestos de trabajo, es más frecuente el uso del teléfono móvil, para las comunicaciones, difusión y envío de información, promoción e inscripción en actividades, etc.

Exponen que hasta el momento vienen utilizando sus teléfonos personales y consideran que es fundamental el diferenciar el uso del teléfono personal, del laboral, tanto para el personal empleado como para las personas usuarias de los servicios y conjunto del vecindario, ya que es importante que los contactos, tanto de usuarios como de profesionales

lanpostu hori betetzen duen edonorentzat eskuragarri egotea.

Kontuan harturik lan-ordutegitik kanpo gero eta pertsona gehiagok idazten duela, eskatzen dute zerbitzu bakoitzari Interneteko konexioa duen sakelako telefono bat jartzeko.

Eskaera azterturik, Batzorde Nagusiak hori onestea erabaki du.

2.- BIDANKOZEKO NATURA-INGURUNEKO JARDUEREN PROIEKTUA ERRONKARIBARKO WEB ORRIAN SARTZEA

Bidankozeko alkateak eskaera aurkeztu du Bidankozeko natura-inguruneko jardueren proiektua Erronkaribarko web orrian sar dadin.

Proiektu horrek ondokoak hartzen ditu barne: BTT bideak eta eskalada-eremuak egokitzea, aparkaleku bat informazio turistikoarekin, bizikletak garbitzeko gunea eta autokarabanak husteko gunea.

Garatutako proiektua interesgarritzat joz, Batzordeak web orrian argitaratzea erabaki du.

3.- 2020KO LAN-EGUTEGIA

Batzorde Nagusiari jakinarazi zaio langileen ordezkariarekin adostutako lan-kontratudun langileen 2020ko lan-egutegia. Horren arabera, 218 lanegun eta 1592 lanordu izanen dira, jaiegunak, oporrak, zaindariaren jaiegunak eta herriko jaia kenduta. Lanaldi osoa 7 ordu eta 18 minutukoa izanen da, eta lanaldi erdia 3 ordu eta 39 minutukoa. Zaindariaren jaiegunak Erronkari herrikoak izanen dira, eta herriko jaieguna abenduaren 26a.

Aurkeztutako proposamena ikusirik, Batzorde Nagusiak lan-egutegia eta atxikitako eranskinak eta argibideak (oporren, zaindariaren jaiegunen eta nor bere kontuetarako egunak arautzen dituztenak) onestea erabaki du.

Izaba abstenitu egin da ez zaiolako bideragarria iruditzen.

4. MARCELINO LANDAK ETA DAVID LALANAK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO

estén disponibles, a futuro, para cualquier persona que ocupe estos puestos de trabajo.

Teniendo en cuanta, además, que cada vez más personas contactan fuera del horario de trabajo solicitan se dote a cada servicio de un teléfono móvil con conexión a internet.

La Junta, tomando en consideración la solicitud, acuerda acceder a lo solicitado.

2º.- PUBLICACIÓN DEL PROYECTO DE ACTIVIDADES EN EL MEDIO NATURAL DE VÍDANGOZ, EN LA PÁGINA WEB DEL VALLE DE RONCAL

El Sr. Alcalde de la villa de Vidángoz presenta una solicitud para que se incluya en la página Web del Valle de Roncal, el proyecto de actividades en el Medio Natural de Vidángoz.

Dicho proyecto comprende la habilitación de senderos BTT y la adecuación de zonas de escalada. Incluye, además, una zona de aparcamiento habilitada con información turística, zona de limpieza de bicis y vaciado de autocaravanas.

La Junta, considerando de interés el proyecto desarrollado, acuerdo publicarlo en la página Web del Valle.

3º.- CALENDARIO LABORAL DEL PERSONAL EMPLEADO DE LA JUNTA 2020

Se pone en conocimiento de la Junta el Calendario Laboral para el año 2020 del personal empleado, consensuado con la Delegada Sindical. En el citado calendario consta que corresponde trabajar 1.592 horas y que los días laborables son 218, descontadas las fiestas de carácter retributivo y no recuperables, las vacaciones, la fiesta local y fiestas patronales. Así pues, la jornada completa será de 7 horas y 18 minutos y la media jornada de 3 horas y 39 minutos. Los días patronales serán los de la villa de Roncal y la festividad local el día 26 de diciembre.

La Junta, a la vista del Calendario presentado, que queda archivado en el expediente de su razón, acuerda, por mayoría, aprobarlo junto con las aclaraciones y anexos que se adjuntan, sobre la regulación de las vacaciones, fiestas patronales y asuntos propios.

La representación de Isaba se abstiene por considerarlo poco viable.

4º.- RECURSOS DE REPOSICIÓN INTERPUESTOS POR D. DAVID LALANA Y D.

ERREKURTSOAK, PLANTILLA ORGANIKOA ONESTEKO ERABAKIAREN AURKA

David Lalanak eta Marcelino Landak jarritako berraztertzeko errekurtsoak irakurri dira, 2019/12/19ko osoko bilkuran plantilla organikoa onesteko hartutako erabakiaren aurkakoak.

Errekurtsoetan aipatzen da 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran gehiengoz onetsi zela 2020ko Plantilla Organikoa, zenbait lanpostutan euskara merezimendu gisa baloratzea kenduta; hori idazkariak proposatua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Euskararen Foru Dekretuaren zenbait artikulu indarrik gabe utzi baititu gai honekin lotuta: Foru Komunitateko administrazioko zerbitzu zentraletan, eremu mistoan eta ez-euskaldunean euskararen nahitaezkotasuna ez duten lanpostuetan euskara merezimendu gisa baloratzea bertan behera uztea, lehiaketetan eta oposizioetan. Baliogabetzea ez da ezartzen indarrean diren lanpostuetan, baizik eta lanpostu berrietan eta ez orain direnetan sartzeko.

Azaltzen da oinarririk gabeko edo okerreko irakurketa edo interpretazio bat egin dela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiari buruz, indarrik gabe utzitako artikuluek ez dietelako eragiten toki entitateei, Foru Komunitateko Administrazioari eta zerbitzu zentral deitutakoei baizik: 31. artikulua baliogabetu da, Eremu mistoko lanpostuetan euskara merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa, baina soilik Foru Komunitateko Administrazioari eragiten diona; 33. artikulua da toki entitateak arautzen dituena, eta artikulu hori indarrean da; hortaz, guztiz legezkoa da Nafarroako toki entitateetako lanpostuetan euskara merezimendu gisa baloratzea.

Hori dela eta, errekurtso-jartzaileek eskatzen dute berraztertzeko errekurtsoak baiesteko eta Batzorde Nagusiaren 2020ko plantilla organikoa aurreko urteotan bezala onesteko, hau da, euskara merezimendu gisa berrezarriz orain arte halakoa izan duten familia-langileen lanpostuei.

Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du berraztertzeko errekurtsoak baiestea eta Batzorde Nagusiaren 2020ko plantilla organikoa onestea, familia-langileen lanpostuei euskara merezimendu gisa ezarrita.

MARCELINO LANDA CONTRA EL ACUERDO DE APROBACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA 2020

Se da cuenta a la Junta, de los Recursos de Reposición interpuestos por D. David Lalana y D. Marcelino Landa contra el acuerdo adoptado en sesión de fecha 19/12/2019, de aprobación de la Plantilla Orgánica para el año 2019.

En los Recursos de referencia se dice que en sesión de fecha 19/12/2019 se aprobó, por mayoría, la Plantilla Orgánica de la Junta para el año 2020, eliminando de dicha Plantilla, a propuesta del Sr. Secretario, la valoración como mérito del euskera que figura en varios puestos de trabajo, habida cuenta que el Tribunal Superior de Justicia de Navarra (TSJN) ha anulado los artículos del Decreto Foral del euskera sobre la valoración del vascuence como mérito para cualquier puesto de trabajo que no tenga perfil obligatorio en la zona mixta, la zona no vascófona y los puestos de los servicios centrales de la Administración de la Comunidad Foral cuando el ingreso se realice por concurso u oposición a la vista de la misma, si bien esta anulación no es de aplicación a los puestos existentes y solamente se aplica a los nuevos ingresos que se puedan realizar y a la vista que para acceder a los puestos no se exigió la valoración del vascuence como mérito.

Se dice que ha existido una lectura o interpretación errónea de la sentencia del TSJN ya que ninguno de los artículos anulados afecta a las Entidades Locales de Navarra, sino a la Administracion de la Comunidad Foral. El artículo invalidado, relativo a la valoración el euskera como mérito en los puestos de la zona mixta, es el artículo 31, dirigido exclusivamente a la Administración Foral. Esto no afecta a las Entidades Locales de Navarra que están reguladas por el artículo 33 de dicho Decreto Foral que sigue en vigor, por lo que para las Entidades Locales de Navarra la valoración del euskera como mérito es perfectamente legal.

Se solicita, por los recurrentes, sean tomados en consideración y se apruebe la Plantilla orgánica de 2020, como se ha venido aprobando los últimos años, incluyendo la valoración del euskera como mérito en los puestos de trabajo señalados como Trabajadoras Familiares.

La Junta acuerda, por unanimidad, estimar los Recursos de Reposición indicados y, por mayoría, aprobar la Plantilla Orgánica de la Junta General del Valle de Roncal para el año 2020, incluyendo la valoración del euskera como mérito en los puestos de trabajo señalados como Trabajadoras Familiares.

Izabak aurka bozkatu du, bere ustez euskararen ezagutza bakarrik euskara teknikariari exijitu behar zaiolako, eta ez gainerako langileei.

5.- ARAKO GARCESEK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, 2019-11-07KO OSOKO BILKURAN HAUR ESKOLAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA

Batzordeari jakinarazi zaio Arako Garcesek, Erronkaribarko Haur Hezkuntzako ikastetxean haurrak dituzten gurasoen ordezkari gisa, berraztertzeko errekurtsoa jarri duela 2019-11-07ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurka, zeinak Batzordeak Haur Hezkuntzako ikastetxeari buruz erabakitakoak berretsi baitzituen.

Errekurtsoak honela dio:

Lehenengoa: Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Dekretuaren III. kapituluko 18.4 artikuluak honako hau dio: "Ikastetxearen antolaketa-beharrek hala eskatzen dutenean, adin desberdinetako haurrak unitate batean bildu ahal izango dira, ratio hauen arabera:

a) 0 eta 1 urteko haurrentzako unitateak: 8

b) 1 eta 2 urteko haurrentzako unitateak: 14

c) Adin guztietako haurrentzako unitateak: 10"

Hau da, dekretuaren arabera, 0-3 urteko modulu baterako gehienez 10 haur egon daitezke.

Bigarrena: Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Dekretuaren III. kapituluko 18.1 artikuluak honako hau dio: "Aldi bereko presentzia duten langileen gutxieneko kopuruak aldi bereko funtzionamendua duten unitateen kopurua gehi bat izan beharko du"; hau da, langileen kopurua ez da ikastetxean dauden haurren kopuruaren arabera kontratatzen, unitate edo modulu kopuruaren arabera baizik. Langile kopurua = modulu-kopurua + 1.

Hirugarrena: Nafarroako 0-3 Plataformaren aldarrikapen nagusia da ratio baxuagoak eskatzea, egungoak arriskutsuak baitira haurrentzat eta langileentzat. Unitate bakoitzeko haur kopuru handiak zaildu egiten du 0 eta 3 urte bitarteko haurren beharrei erantzutea giro lasaian, eta haien garapenean oinarritutako banakako arreta egitea. Halaber, Europako

La representación de Isaba vota en contra por considerar que el conocimiento del euskera debe exigirse únicamente al Técnico de Euskera, no debiendo exigirse su conocimiento al resto del personal.

5º.- RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR DÑA. ARAKO GARCÉS CONTRA EL ACUERDO ADOPTADO EN SESIÓN DE 7/11/2019, EN RELACIÓN CON EL FUNCIONAMIENTO DE LA ESCUELA INFANTIL

Primeramente, se pone en conocimiento de la Junta el recurso de Reposición interpuesto por Dña. Arako Garcés, en representación de los padres y las madres con niños y niñas en el centro de Educación Infantil del Valle de Roncal, contra el acuerdo adoptado en sesión de fecha 7/11/2019 en el que la Junta se ratifica en todo lo decidido, en relación con el Centro de Educación Infantil.

En el Recurso de referencia se expone:

Primero: Que según el decreto 28/2007 de 26 de marzo, por el que se regula el primer ciclo de educación infantil, en el capítulo III, artículo 18.4 dice: "Cuando las necesidades de organización del centro lo requieran podrán agruparse niños de distintas edades en una unidad, de acuerdo con las siguientes ratios:

a) Unidades para niños de 0 y 1 años: 8

b) Unidades para niños de 1y 2 años: 14

c) Unidades para niños de todas las edades: 10"

Es decir que, según el decreto, el número máximo de niños/as para un módulo de 0-3 años es de 10.

Segundo: Que según el decreto 28/2007 de 26 de marzo, por el que se regula el primer ciclo de educación infantil, en el capítulo III , artículo 18.1 dice: "El número mínimo de profesionales con presencia simultánea deberá ser igual al número de unidades con funcionamiento simultáneo más uno", es decir, el número de profesionales no se contratan según el número de niños/as que haya en el centro sino que se contratan según el número de unidades o módulos. N.º de profesionales = N.º de módulos + 1.

Tercero: Que la primera reivindicación de la Plataforma 0-3 años de Navarra es reclamar ratios más bajas ya que los actuales generan un peligro para las criaturas y para las profesionales responsables del grupo. El gran número de niños/as por unidades hace muy difícil atender las necesidades de los/as niños/as de 0 a 3 años, en un ambiente tranquilo y una atención individualizada y centrada en su desarrollo. Pero, además en la misma línea, la Red de Atención a la

Batzordearen Haurren Arretarako Sareak ere gomendatzen du ratioak jaistea, adingabeei arreta hobea emateko.

Laugarrena: Kontuan harturik despopulazioaren arazoa eta biztanleak finkatzen eta lan-bizitza eta familiakoa bateratzen laguntzeko zerbitzu bat emateko beharra, gurea bezalako ibar batean 0-3 urteko hezkuntza-zikloan inbertitzea beharrezkotzat ez jotzea Pirinioetako ponentziaren zentzuaren aurka joatea da, Nafarroako Parlamentuak aho batez onartu zuena 2018ko azaroaren 8an.

Haur Eskolako gurasoek aurkeztutako idazkiari buruz 2019ko azaroaren 7ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurkako berraztertzeko errekurtsoa aurkezturik, eskatzen dute hori baietsi eta aurreko erabakia bertan behera uzteko, Batzordeak 2019ko maiatzaren 22an hartutako erabakira itzuliz, dagozkion legezko izapideak egin ondoren.

Jarraian, berraztertzeko errekurtsoari buruz Abokatu-aholkulariak egindako txostena irakurri da. Bertan, aurrekariak labur-labur aipatzen ditu eta honako hau adierazten du: "orain arte erabakitakoa berresteko" erabakia da 2019/08/06ko bileran lortutako akordioa berrestea, eta erabaki hark 2019/05/22ko erabakia baliogabetu zuen eta berekin ekarri zuen Hezkuntza Departamentuak 10 haurren ratioa malgutzeko proposatutako aukera onartzea: gehienez 14 haur 0 eta 3 urte bitarteko unitate batean, une oro bi pertsona egon behar direla.

Abokatu-aholkulariak azaltzen duenez, 2019/11/07ko erabakia aurreko akordio bat berresteko erabakia da (2019/08/06koa), eta irmo bihurtu zen ez baitzuen inork errekurtsorik jarri legez ezarritako epeetan. Hortaz, termino juridikoetan, erabaki hori onartutzat jo behar du errekurtso-jartzaileak, eta ezin da itzuli aurreko erabakia berariaz onartzeko egintzen aurka.

Azaltzen du ez dirudiela berresteko erabakia eta abuztuaren 6ko erabakia legearen aurkakoak direnik; izan ere, irtenbide hori Hezkuntza Departamentuak proposatu zuen 28/2007 Foru Dekretuaren interpretazio finalista eta posibilista bat eginez, bete-betean asetzen omen dituena bertara joaten diren haurren beharrak, ikastetxeko zuzendaritzaren iritziz; eta, aldi berean, matrikulatu ziren 11 haurren gurasoen eskubideak bermatzen baititu.

Infancia de la Comisión Europea también recomienda una bajada de ratios para una mejor atención de los menores.

Cuarto: Que en un valle como el nuestro invertir en el ciclo educativo 0-3 años se considere un gasto innecesario, teniendo en cuenta la problemática de la despoblación, y la necesidad de dar un servicio tanto para ayudar a asentar población como para ayudar a conciliar la vida laboral con la familiar es ir en contra del sentido de la "Ponencia del Pirineo", aprobada por unanimidad en el Parlamento de Navarra el 08/11/2018

Se solicita que teniendo por interpuesto el recurso de reposición, contra el acuerdo adoptado en sesión del 7 de noviembre de 2019, sobre el escrito presentado por las madres y padres de la Escuela Infantil en el que piden, entre otras cosas, que se vuelva al acuerdo adoptado por esta Junta el 22 de mayo 2019, y previos los trámites legales oportunos, lo estime, revocando el mismo.

A continuación, se da cuenta de las consideraciones del Letrado Asesor sobre el Recurso de Reposición en el que hace una breve referencia a los antecedentes e indicando que el acuerdo de "ratificarse en lo decidido hasta ahora" consiste en ratificar el acuerdo alcanzado en la sesión e 6/08/2019 que revocó el acuerdo de 22/05/2019, y que conlleva admitir la alternativa propuesta por el Departamento de Educación de flexibilizar la ratio de 10 niños/as, admitiendo hasta un máximo de 14 niños/as, en una unidad de 0 a 3 años, con la exigencia de que en todo momento debe haber dos personas en el interior del aula.

Explica el Letrado que el acuerdo de 7/11/2019 es un acuerdo confirmatorio de otro anterior (el de 6/08/2019) que ganó firmeza al no haber sido recurrido por nadie en los plazos legalmente establecidos, siendo un acuerdo que, en términos jurídicos, debe considerarse como consentido y aceptado por la ahora recurrente, no pudiendo volver contra sus propios actos de aceptación expresa del acuerdo anterior.

Dice que no parece que el acuerdo de ratificación, al igual que el adoptado el 6 de agosto, sea contrario a la legalidad ya que tal solución fue propuesta por el Departamento de Educación, en el marco de una interpretación finalista y posibilista del Decreto Foral 28/2007, que satisface plenamente, según parece derivarse de la opinión de la dirección del centro escolar, las necesidades de los niños que acuden a él, a la vez que ha posibilitado garantizar los derechos de los padres de los 11 niños/as que quisieron

Amaitzeko, uste du ez dela baietsi behar Arako Garcesek jarritako berraztertzeko errekurtsoa, eta subsidiarioki ezetsi behar dela, hartutako erabakia zuzenbidearekin bat datorrela iritzita. Irizpenen txostena bere espedientean artxibatu da.

Errekurtsoaren balorazioan adostasunik ez dagoenez, gaia bozkatu egin da: Uztarrozek, Erronkarik, Burgik eta Bidankozek errekurtsoa ezestearen alde; Izabak baiestearen alde, eta adierazi du bere borondate politikoa izan dela eta badela Batzordeak 2019-05-22ko osoko bilkuran hartutako erabakiari eustea; Urzainki abstenitu egin da.

Bozketaren emaitza ikusirik, Batzordeak gehiengoz erabaki du Arako Garcesek jarritako berraztertzeko errekurtsoa ezestea, hartutako erabakia zuzenbidearekin bat datorrelako eta aurreko beste erabaki bat berresten zuelako, 2019/08/06koa, irmo bihurtu zena inork ez baitzuen errekurtsorik jarri legez ezarritako epeetan.

Gizarte Ongizate, Hezkuntza, Musika Eskola, Euskara, Kultura eta Kirol Batzordeak bilera eginen du Haur Eskolaren funtzionamenduari buruz hitz egiteko. Bilera batzorde horretako presidenteak deituko du.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:45ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik."

Eta behar den lekuan ager dadin, ontzat emana eta zigilatuta, honako egiaztagiri hau egin eta Erronkaribarko udaletara bidali da iragarki-oholetan jendaurrean jartzeko.

Erronkarin, 2020ko otsailaren 11n.

matricularse.

Para finalizar, considera que debe inadmitirse el Recurso de Reposición interpuesto por Dña. Arako Garcés y, subsidiariamente desestimarlo por considerarse el acuerdo adoptado, adecuado a derecho.

El informe con las consideraciones, queda archivado en el expediente de su razón.

A la vista que no existe unanimidad en la valoración del Recurso, se somete el asunto a votación, dando el resultado siguiente: Votan a favor de la desestimación: Uztárroz, Roncal, Burgui y Vidángoz; Isaba vota estimar el Recurso manifestando que su voluntad política ha sido y es mantener el acuerdo adoptado por esta Junta en sesión de 22/05/2019; Urzainqui se abstiene.

La Junta, a la vista del resultado de la votación, acuerda, por mayoría, desestimar el Recurso de Reposición interpuesto por Dña. Arako Garcés por ser el acuerdo adoptado adecuado a derecho y confirmatorio de otro anterior (el de 6/08/2019) que ganó firmeza al no haber sido recurrido por nadie en los plazos legalmente establecidos.

Queda pendiente llevar a cabo una reunión sobre el funcionamiento de la Escuela Infantil por parte de la Comisión de Bienestar Social, Educación, Escuela de Música, Euskara, Cultura y Deporte. La reunión será convocada por la Sra. Presidenta de la citada Comisión.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos del día señalado al inicio, por la Sra. Presidenta se levanta la sesión, redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmada por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico."

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a once de febrero de dos mil veinte.

Vº Bº/ O.E.
LA PRESIDENTA/BATZORDEBURUA

Fdo./Sin.: Jone Alastuey García

EL SECRETARIO/IDAZKARIA

Fdo./Sin. Marcelino Landa Pasquel